

# GARDATXOA, ERRIBERAKO MUSKER ERRALDOIA

Testua eta argazkiak: **Jose Ramon Aihartza**

**E**GUZKIAK bazterrak kiskaltzen dituen egun horietako batean, Erribera inguruko sastrakadietan zehar ibilal-ditxo bat egitean, batek baino gehiagok entzuna izango du sasi artean ihesi doan *pizti* ezezagunak egindako ustegabeko zalaparta. Lasterkako urratsek eta soina arrastaka eramateak ateratzen duten zarata handiak despistatu eta kezkatu ere egin dezake animalia iheslariaren berri ez duen mendizalea. Nafarroa eta Arabako hegoaldeko biztanleek aldiz, ondotoxo ezagutzen dute gardatxoa; Europako saururik handiena eta musker berdearen ahaide erraldoia dena.

Izan ere, gardatxoak 20 cm neurtzen ditu muturretik uzkira, eta guztira 60 cm eta gehiagoko luzera izan dezake. Oro har, bere



*Gardatxoaren fitxa teknikoa eta Euskal Herrian duen banaketa-mapa.*

### FITXA TEKNIKOA

GARDATXOA

**ESPEZIEA:**

*Lacerta lepida*

**FAMILIA:**

LACERTIDAE


**ORDENA:**

SQUAMATA

**KLASEA:**


REPTILIA

### BANAKETA-MAPA



anatomia gainerako muskerren antzerakoa da, baina Euskal Herriko gainerako muskerren aldean gorputz sendoa eta buru bikaina ageri ditu, eta ezkata gogorrez osa-

tutako janzkera latzak bere arbaso ziren sauru erraldoiak dakartzagu gogora. Espeziearen ezaugarri bereizgarrien artean aipagarrienak hiru dira: batetik, berde biziz kolorez-




1. Musker berdea; buruaren ikuspegi dorsala.
2. Gardatxoa; " " "
3. Musker berdea; sabeleko ezkatak.
4. Gardatxoa; " " "

tatutako larruazal ezkatatsuen sailhetsetan orbain urdin nabarmenak izaten ditu; bigarrenaz, buru sendoaren gaineko aldean kokatutako ezkata okzipital ia triangeluarra ezkata frontala baino zabalagoa du; eta azkenik, sabeleko ezkatak luzetarako 10 lerrotan antolatuta ageri ditu (ikus irudiak).

Gardatxoa musker lasaia eta berozalea da, eta ondorioz eguzkiak gogor jotzen duenetan harri edota zuhaitz-enborren gainetan etzanda egotea du gogoko. Horrelakoetan ordu luzeak eman ditzake eguzkitiko izpi goxoak hartuta gozatzeko, eta lasai asko egoten da etsaia izan

**Europako saururik handiena eta musker berdearen ahaide erraldoia dugu gardatxoa.**

daitekeenik hurbiltzen ez bazaio behintzat. Arriskua somatzean ordea, begiak zabaldu eta ziztu bizian alde egiten du sasi edo harri artera, ihesean ateratzen duen zalapartzaz



**Euskal Herriko gainerako muskarren aldean gorputz sendoa eta buru bikaina ageri ditu gardatxoak, eta ezkata gogorrez osatutako janzkera latzak bere arbaso ziren sauru erraldoiak dakartzagu gogora.**

arduratu ere egin gabe. Beraz, gardatxoa leku idor eta eguzkitsuetan bizi da, sastrakadietan, baso garbietan, edota lur harritsuak dagoeneko parajeetan. Elikadurari dagokionean, omniborua dela eta, nahikoa dieta dibertsoa duela esan behar da. Bere ehizakien artean batez ere intsektuak, zizareak eta beste ornogabeak aipatu behar dira, baina hauetaz gainera karraskari batzuk, txori txikiak eta arrau-





tzak ere jan ditzake. Halaber, gogoko ditu fruitu gozoak ere.

Gardatxoaren araldia apirilaren erdi aldetik ekainera bitartekoa izaten da, eta ugalketa gainerako lazertido gehienetan bezalatsu gertatzen da: arrak emea hortzez harrapatzen du, barne-ernalketa kopularen bitartez burutuz. Emeak 6-15 arrautza erruten ditu, hauek lurrian edota harri azpian utzirik, eta narrasti eta anfibio gehien kasuan bezalaxe, hauek patuaren menpe geratuko dira, gurasoen aldetik inolako arreta edo arduririk jaso gabe. Hiru hilabetera jaioko diren gardatxokumeak beren gisara moldatu beharko dute, janaria bilatu eta mota guztietako arriskuei aurre eginez.

Banaketari dagokionez, gardatxoa Iberiar penintsulan, Frantziako hegoaldean, Italiako ipar-mendebaldean eta Afrikako iparaldean bizi den espezie mediterraniarra da. Euskal Herrian berriaz, Arabako erriberan, eta Nafarroako hegoaldean bakarrik ikusi da. Banaketa honen arabera, gardatxoak musker berdearentzat idorregi diren habitatak betetzen ditu,

**Gardatxoa leku idor eta eguzkitsuetan bizi da, sastrakadietan, baso garbietan edota lur harritsua dagoeneko parajeetan.**

eta batera ageri diren eskualdeetan musker berdea (*Lacerta viridis*) bertako lekuri heze eta freskoez bizi da, bazter lehorrenak gardatxoaren menpe geratzen direlarik.

Zoritxarrez, eta beste espezie askorekin gertatu den bezala, gardatxoa gero eta ikuskaitzago eta urriago bihurtu zaigu azken urteotan, eta zenbait autoreren ustetan espezie honetako populazioen egoera kritikoa ere bada jadanik. Eta ez noski bere etsai natural diren arrano eta beste harraparien ihardueren ondorioz. Aitzitik, gizakiak ere espaldidanik ehizatu du gar-



datxoa bere okela samur, zuri eta preziatua dela eta. Bestalde, nekazaritzak ia erabat irentsi ditu animalia honen bizileku diren sastrakadiak eta gainerako eremu naturalak. Ondorioz, gardatxo-populazioak gaur egun oraindik geratzen diren landaretza naturalez osatutako irletan eta nekazal alor zabalen artean utzitako sastraka-hesi eskasetan isolatuta bizi beharrean aurkitzen dira. Beraz, ez dago esan beharrik ingurune hauek babestea gardatxoarentzat eta berau bezala bertan bizi diren beste makina bat bizidunentzat ere derrigorrezkoa dela.